

Jarduerak

**1. Unitatea:
Afrika birpentsatu**

1. Jarduera:



Izenburua: Afrika bere literaturaren bidez, bere erreferenteen bidez: Nor izan zen Chinua Achebe?

Kategoria: SUSTRAIRA

Aurkezpena:

Ehiztariak (potentzia kolonizatzaileek) kontatu digu Afrika, eta ez lehoiak (kontinente afrikarrak). Horregatik, kontinente zahar, mitiko eta exotiko gisa irudikatu da, irudi okerrak sortuz eta, oro har, hari buruzko ezjakintasun handia sortuz.

Hala ere, azken hamarkadetan, historialari afrikarrek egindako ikerketa **orain arte Mendebaldean kontuan hartu ez ziren kontinenteari buruzko ezagutzak eskaintzen ari da.**

Helburu horrekin, Chinua Achebe Nigeriako intelektualaren figurara hurbilduko gara; esaldi ospetsu hau harena da: ***“Lehoiak ere behar du bere historia kontatuko duenik. Ez ehiztariak soilik”.***

Ikasleek eleberrigile, poeta, saiakera-gile eta eruditu nigeriar konprometitu horren bizitza eta lana ikertuko dituzte; askotan, **afrikar eleberriaren aita** dela esan izan da. Afrikako estatu berriak sortzeko eta beren tradizio propioak berreskuratzeko une erabakigarrian agertu zen, hazkunde poli-

tiko indartsuko eta aparteko kultura-intentsitateko garai batean.

Helburu didaktikoak:

1. Afrikar kulturari buruz ditugun estereotipoak zalantzan jartzen eta hausten dituzten afrikar erreferenteak ezagutu; irakaskuntzaren bidez, gure eguneroko kulturaren eta gure gorputz eta adimenetan sartu izan dira estereotipo horiek.
2. Informazioa ulertu (alderatu, sailkatu, sekuentziatu, aztertu eta laburbildu), buruz ikasi eta adierazi (deskribatu, definitu, laburtu, azaldu...) eta baloratu (argudiatu, justifikatu).
3. Ideiak sortu, aukeratu eta adierazi.
4. Lortutako emaitzen berri eman.
5. Laguntza eta lankidetzaren aldean ikasteko zereginetan.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

6. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
7. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
8. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Euskara eta gaztelania eta literatura** (Komunikazio linguistikoa eta literarioa).
3. **Atzerriko lehen hizkuntza. Ingelesa** (Komunikazio linguistikoa eta literarioa).
4. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

5. Hezkuntza plastikoa, bisuala eta ikus-entzunezkoa (Gaitasun artistikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Ehiztariak (potentzia kolonizatzaileek) kontaktu izan digute Afrika, eta ez lehoiak (Afrikako kontinenteak).
- “Historia bakarraren” arriskuaz jabetzea: *“gauzen historia bakar bat kontatzeak, ikuspuntu bakar batekin, gizarte baten edo pertsonen ideia bakar batekin, errealitatea islatzen ez duten estereotipoak sortzera garamatza, eta gizarte-talde batzuen bazterketa edo marjinazioa ere eragin dezakete horiek”* (Chimamanda Adichie, idazle nigeriarra).
- Duela gutxi baino ez dugu ezagutu Afrikaren iragana protagonistek kontatuta. **“Lehoiak ere behar du bere historia kontatuko duenik. Ez ehiztariak soilik”.**

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - “abisua”:

- Azken helburua da gu pertsonaiaren motibazioak eta kezak ulertzeko gai izatea.
- Biografia on batek laburra eta sintetikoa izan behar du. Wikipediatik kopiatutako zerbait baino hobe da biografia laburra eta modu pertsonalean egina.

Garapena:

Biografia bat idazten dugunean, pertsona jakin batek denbora eta

testuinguru historiko jakin batean gizartean izan zuen bizitza eta egin zituen ekarpenak aztertzen ditugu. Biografiak denboraren muga zeharkatzen duen bizitza baten testigantza gisa balio du, eta, historia pertsonalen bidez, garai bat pentsatu, ikusi eta ulertzeko moduz jabetzeko aukera ematen digu. Horretarako, ikasleek **“Chinua Acheberen bizitzaren historia”** egin beharko dute, eta, horretan, haren bizitzako eta obrako gertaera garrantzitsuenak kontatuko dituzte.

Hasteko, irakasleak jardueraren helburuak, garapena eta egin beharreko lanak aurkeztuko dizkie ikasleei.

Ondoren, lauzpabost ikasleko taldeak osatuko dira. Taldeak irakasleek komenigarritzat jotzen dituzten irizpideen arabera eratu daitezke, edo ikasleei horien osaketa erabakitzen utzi. Taldeak osatu ondoren, pertsona bakoitzak egin beharreko lanak esleituko dira; honako hauek:

1. ZEREGINA: Informazio-iturria aukeratu: urrats hau oso erraza da, beherrago emango dizkizuegun estekekin lan egingo baitugu.

Informazioa prozesatu: informazioa prozesatzeko eta antolatze tekniken bidez (azpimarraketa, sintesia, mapa kontzeptuala eta abar), ideia nagusiak identifikatu, laburtu eta idatzi.

Kontuan hartu beharreko puntu batzuk:

- Pertsonaia denboran eta espazioan kokatu: jaiotza- eta heriotza-datak, bizi izan zen mendea eta zein garai historikotakoa den jakin.

Zein herrialdeetan bizi izan zen ere jakin behar dugu. Jakina, mapen laguntza izan dezakezu.

- Zehaztu zergatik den garrantzitsu pertsonaia: pertsonaia ulertzeko, bere garaian kokatu behar duzu, bere ekintzak aztertu eta bere motibazioez galdetu zeure buruari (idea berririk ekarri al zion munduari? Lan handiren bat egin zuen? Aitorpenik izan zuen bere garaian?).
- Irudiak bilatu: haren bizitzari eta nortasunari buruz asko jakin dezakegu, haren irudiak eta bideoak aztertuz gero. Kasu honetan, Internetek informazio-emari handia eskaintzen digu.

Modu kritikoan baloratu pertsonaia: kontua iruzkin subjektibo bat egitea da, pertsonaia historikoari buruzko gure ondorioak eta iritzi pertsonalak azaltzeko.

2. ZEREGINA: Informazioa bildu eta aztertu ondoren, lanean hasteko eta "Bizitzaren historia" osatzeko lanean hasteko garaia da. Era askotara egin dezakegu kontaketa: pertsonaiaren bizitza kronologikoki narratu dezakegu edo une horretan aztertzen ari garen gaiarekin lotuta interesgarrienak diren bizitzako eta laneko alderdiak aukeratu ditzakegu.

Azken produktu gisa, talde bakoitzak ekoizpen kolektibo bat entregatu beharko du, eta, horretan, "Chinua Acheberen bizitzaren historia" islatuko da.

Irakasleei eta ikasleei beren lana azaltzeko metodo plastiko eta bisuala

aukeratzen utziko zaie. Adibidez, bideo bat edo horma-irudi sortzaile bat egin daiteke edukiak modu sortzaile eta erakargarrian erakustea ahalbidetzen duten hainbat teknika erabiliz (lap-book-ak, collagea eta abar), taldeko jardueretarako funtzionalak direnak, elkarlaneko dinamika erabiltzen dutenak, halako moldez non ikasle bakoitzak ideien eta lanen ekarpena egin ahal izango duen hura sortzeko. Adibidez, parte-hartzaileraren bat marrazten ona baldin bada, irudiz arduratu daiteke, eta beste bat informazioa bilatzen eta hura idazten ona baldin bada, lan hori egiteko eska dakiok.

3. ZEREGINA: Azken produktuaren aurkezpena: talde bakoitzak bere azken produktua aurkeztuko du ikasgelan edo ikasgelatik kanpoko publiko baten aurrean, hala nola beste maila bateko ikasleak, familiak eta abar.

Aurreikusitako iraupena:

- **0. zeregina - Aurkezpena, taldeen eraketa eta zereginen banaketa:** ordubete (saio 1).
- **1. zeregina:** 2 ordu (2 saio).
- **2. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa izanez gero, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete.
- **3. zeregina:** ordubete (saio 1). Astebeteko epea eman daiteke 2. zereginaren eta 3.aren artean.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

CHINUA ACHEBERI BURUZ:

- <https://www.casafrika.es/es/persona/chinua-achebe>
- https://es.wikipedia.org/wiki/Chinua_Achebe
- <https://personajeshistoricos.com/c-es-critores/chinua-achebe/>
- <https://www.potopoto.es/afroreferentes/escritores-afro/chinua-achebe/>

NOLA EGIN BIOGRAFIA BAT?

- <https://www.youtube.com/watch?v=-gr6OQ6ZrE0A>
- <https://www.youtube.com/watch?v=V-088fohZqrl>

Biografia bat erakusteko inspirazio iturri izan daitezkeen modu sortzaileak:

LAPBOOK TEKNIKA:

- <https://www.unir.net/educacion/revista/lapbooks-construyendo-el-aprendizaje-con-las-manos/>
- <https://es.paperblog.com/lap-books-para-secundaria-551905/>

- <https://www.educaciontrespuntocero.com/recursos/webs-plantillas-lap-books/>

INFOGRAFIA (KONTZEPTUA, ZATIAK, EZAUGARRIAK, MOTAK):

- <https://www.youtube.com/watch?v=mxRcYGXWEm8>
- <https://youtu.be/V088fohZqrl>
- <https://www.facebook.com/librodecuentosehistoriaparatodos/photos/infograf%C3%ADa-de-la-vida-de-frida-kahlo-/164073771984372/>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

2. Jarduera:



Izenburua: “Eta... balitz...”

Kategoria: JOLASTU

Aurkezpena:

1. unitateko lehen jarduera honekin, “istorio bakarrek” Afrikako leku, jende eta kulturei buruz zer transmititu diguten ulertuz hasiko gara. Afrikako kontinenteari buruzko gure ideietan, pertzepzioetan eta sententzioetan eragiten duten estereotipo negatiboz osatutako iruditeria sortu duten istorioak dira. Eta, horregatik, garrantzitsua da barneratutako ideiak, jarrerak eta portaerak berrikustea, hortik aurrera “Afrika birpentsatzen” hasteko.

Helburu didaktikoak:

1. Barneratuta dauzkagun Afrikako kontinenteari buruzko ideiak, pertzepzioak eta sententzioak identifikatu.
2. Afrikari buruzko mendebaldeko estereotipo horiek zalantzan jarri eta eztabaidatu, apurtzen eta beste batzuk eraikitzen hasteko.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Hitzeko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.

3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. Geografia eta Historia (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. Balio etikoak (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Pertsona, herrialde edo kontinente bati buruzko istorio bat baino entzuten ez badugu, horien zati bat baino ez ulertzeko arriskua dago.
- “Afrikako historia, lehoiak kontatua, eta ez ehiztariak” esaldiaren esanahia.
- Afrikaren historia eta bere kultura, politika, ekonomia eta beste alderdi asko. Mendebaldeko ikuspegitik kontatu eta transmititu izan dizkigute beti.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - “abisua”:

- Ariketaren helburua da ikasleak ohartzea Afrikari buruz eraiki den iruditeriaz.
- Dinamizatzen duen pertsonaren figura funtsezkoa izango da, bera arduratuko baita ikasleei beren gogoetetan laguntzeaz, horrela irakaskuntza-ikaskuntza prozesua erraztuz.

Garapena:

Jolasaren funtsa honako hau da: Afrika hainbat objektorekin identifikatuz,

ikasleak, inkontzienteki, Afrikako kontinentearen iruditeria eta hura osatzen duten estereotipoak ezagutzera iristea.

1. ZEREGINA: ikasle bakoitzari fitxak banatuko zaizkio. Banaka, **“Eta Afrika balitz?”** fitxa betetzeko eskatuko zaie. Esaldiak azkar bete behar dituzte, eta bururatzen zaien lehenengo gauzarekin. Pentsatzeko denbora askorik ez izatea, eta, hartara, erantzunak subkontzientetik lortzen laguntzea da helburua.

2. ZEREGINA: banakako fitxa betetakoan, 5 talde osatuko dira. Taldeak egoki iritzitako irizpideen arabera eratu daitezke, eta ikasleei beren osaera erabakitzeko aukera ematea ere badago.

Ondoren, talde bakoitzean pertsona bat izendatuko da **moderatzaile**, txanda birakari bati jarraituz, erlojuaren orratzen noranzkoan, inor aparte ez uzteko. Pertsona bat edo bi arduratuko dira oharrak hartzeaz, eta banakako erantzunak orri batean idatziko dituzte. Erantzunetakoren bat errepikatzen bada, errepikapenen kopurua jarriko da erantzunaren ondoan.

3. ZEREGINA: talde-lana amaitutakoan, **bateratze-lana** egingo da, talde bakoitzean lortutako emaitzak partekatze eta egituratzeko. Ikasleek, talde bakoitza moderatzearen arduradun, jaso dituzten erantzunak partekatuko dituzte ikaskideekin.

Bitartean, talde bakoitzean oharrak hartzeko ardura dutenek beren taldearen erantzunak idatziko dituzte arbe-

lean edo papelografoan, ikasle guztiek ikus ditzaten.

1. AUKERA: Talde guztiek erantzunak arbelean idatzi eta erantzun guztien irudi osoa izan ondoren, irakasleak eman diren erantzunen inguruan gogoeta egiteko espazio bat irekiko du. Hausnartzen eta eztabaidatzen lagundu dezaketen galdera batzuk honako hauek izan daitezke:

- Zein dira gehien errepikatzen direnak? Zergatik?
- Zein iruditzen zaizkizue deigarriak? Zergatik?

2. AUKERA: erantzunak erakusteko eta, hartara, ikasleek Afrikaz zer iruditeria duten ikusi ahal izateko, doako web-baliabideak erabil daitezke, hala nola: Mural.ly (<https://www.mural.co/>) edo Padlet (<https://padlet.com/>); horien bidez, ikastetxean erraz zabaltzeko moduko horma-irudi digitalak sortu daitezke, sare sozialak eta abar.

Horma-irudi hori amaieran egiten duten beste horma-irudi batekin alderatu daiteke, ikasleek Afrikaz dituzten ideietan, pertzepzioetan eta abarretan izan daitezkeen aldaketak identifikatzeko.

Aurreikusitako iraupena:

- **Jardueraren aurkezpena eta fitxen banaketa:** 10 minutu.
- **1. zeregina:** Fitxak banaka bete: 2 minutu.
- **2. zeregina:** Taldeak antolatu eta fitxa bateratua egin: 20 minutu.
- **3. zeregina:** Taldeen ahozko azalpena: ordubete.

- **3. zeregina (2. aukera):** Horma-irudia prestatzeko lana: 2 ordu (etxean egin beharreko lana, eskola-ordue-tatik kanpo).

*OHARRA: *Hemen ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakas-kuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

- “Eta Afrika balitz” jardueraren fitxa.
- Idazteko arkatza edo boligrafoa.

- Bateratze-lanerako: arbelak eta klarionak edo papelografoa, post-itak eta koloretako errotuladoreak.

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat ireki-ko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

1. ERANSKINA: Eta Afrika... Balitz?

1. Afrika animalia bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
2. Afrika janari bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
3. Afrika fruta bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
4. Afrika garraiobide bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
5. Afrika objektu bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
6. Afrika kolore bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
7. Afrika arbola bat edo landare bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
8. Afrika urtaro bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
9. Afrika musika edo musika-tresna bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
10. Afrika emozio bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...
11. Afrika hitz bat izango balitz, izango litzateke... Zeren...

3. Jarduera:



Izenburua: Zein mapatatik ikusten dugu mundua?

Kategoria: ZABALDU
BEGIRADA

Aurkezpena:

Munduko mapa bat ikusten dugunean, gure planetaren irudikapen erreala, objektiboa eta zehatza dela pentsatu ohi dugu. Baina errealitatea da **munduko mapa guztiak, salbuespenik gabe, irudikapen distortsionatuak direla.**

Nahiz eta, historian zehar, ezin konta ahala kartograforen proiektzio eta proposamen ugari sortu diren, munduaren mapa irudikatzeko moduaren dilemari aurre egin nahian, horietako bakar batek ere ez du errealitatea den bezala irudikatzen.

Baina nola liteke hori? Erantzuna oso erraza da: matematikoki ezinezkoa da esfera baten azalera (3 dimentsio) plano batean (2 dimentsio) irudikatzea nolabait distortsionatu gabe hala lurraldeen tamaina nola beren arteko distantziak edo horietako bakoitzaren forma.

Ariketa honetan, saio ezagunenetako batzuk errepatatuko ditugu. Hausnartuko dugu nola munduaren ikuspegi

distortsionatu horrek, oharkabean, munduaren zatirik handiena gutxies-tera ere bultzatu gaitzakeen.

Helburu didaktikoak:

1. Proiektzio kartografikoa zer den ulertu.
2. Gainazal lau batean (mapak) lur-globoa irudikatzeko erabiltzen diren proiektzio-motak identifikatu: proiektzio zilindrikoa, proiektzio konikoa, proiektzio azimutala eta proiektzio eraldatuak.
3. Mapak helburu desberdinekin sortu zirela ulertu. Proiektzio baten edo bestearen erabilera mapa bakoitzaren motaren eta helburuaren arabera da.
4. Mundua modu batean baino gehiagotan irudika daitekeela ulertu, eta mapa bakoitzak ikuspuntu bat duela, eta, beraz, errealitatearen irudikapen partziala dela.
5. Jabetu nola eragin dezaketen irudikapen kartografikoek herrialdeak eta gizarteak ulertzeko dugun eran.

Oinarrizko gaitasun transbertsalak:

1. Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
2. Hitzezko zein hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna.
3. Elkarbizitzarako gaitasuna.

Oinarrizko Ikasgai eta Gaitasun diziplinarrak:

1. **Geografia eta Historia** (Gaitasun sozial eta zibikoa).
2. **Hezkuntza plastikoa, bisuala eta**

ikus-entzunezkoa (Gaitasun artistikoa).

3. **Balio etikoak** (Gaitasun sozial eta zibikoa).

Jarduerarekin transmititu nahi diren funtsezko mezuak:

- Afrikar kontinenteak beste kontinente batzuekin alderatuta duen benetako tamainaz dugun ikuspegi distortsionatu samarraz jabetu.
- Proiekzio-mota asko daude, eta guztiek ematen diote lehentasuna alderdiren bati, baina beste bat sakrifikatzen dute. Bakar bat ere ez da akatsik gabea, bakar bat ere ez baita gai mundua errealtatean den bezala erakusteko, matematikoki ezinezkoa baita.
- Ez dago proiekzio onik edo txarrik, desberdinak dira, gauza desberdinetarako balio dutelako. Proiekzio kartografikoak mapak sortzen laguntzen diguten tresnak dira, eta, horiekin, nabigatzea, orientatzea, distantziak neurtzea eta antzeko arazoak konpontzen ditugu. Horrez gain, ideiak aurkezteko, istorioak kontatzeko, datuak erakusteko edo bururatzen zaigun beste edozein erabileratarako mapak sortzeko aukera ere ematen digute.
- Mapek, mundua erreproduzitzeaz gain, eraiki egiten dute. Ez dago proiekzio-metodo perfektu bat, denek, modu batera edo bestera, errealtatea distortsionatzen dutelako. Munduaren ikuspegi distortsionatu horrek munduaren zatirik handiena gutxiestera ere eramaten gaitzake, oharkabea.

Ikasgelan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak - "abisua":

- Mapak sortzeak berekin dakartzan akatsez jabetu behar dugu, haiek egia absolutuak balira bezala ez ulertzeko. Guk ematen diogu mapari geuk nahi dugun interpretazioa.

Garapena:

Jarduera honetan, hainbat tresna eta baliabide erabiliko ditugu, proiekzio kartografikoak zer diren ulertzen laguntzeko, bai eta mapak nola egiten diren jakiteko lehen kontzeptuak ulertzeko ere.

1. ZEREGINA: Herrialdeen benetako tamaina. Munduaren mapa irudikatzen duen dilema horren aurrean, ezin konta ahala proiekzio eta proposamen sortu dira historian zehar, denak ere beren akats saihetsezi-ekin.

Bi saiakera ezagunenak errepasatuko ditugu: Mercator mapa eta Peters mapa.

Ikasleak 4 edo 5 pertsonako taldetan banatuko ditugu. Bi mapak eta fitxa aurkeztuko ditugu, taldean eztabai-datzeko galderak eginez.

MERCATOR MAPA VS PETERS MAPA

Bien artean zer desberdintasun daudden aurkitzeko, begi hutsez behatu eta azaltzea eskatuko zaie, gogoeta eginez eta galdera hauei erantzunez:

- Zein mapa egiten zaizu ezagunagoa, Mercator mapa ala Peters mapa?
- Zer iruditzen zaizu Peters mapa? Zer du berezia? Ikusi duzu inoiz?
- Zure ustez, mapek eragina dute mundua ikusteko gure moduan?
- Zergatik dute mapek Iparraldea goian?
- Ezagutzen duzue herrialde aberats eta pobreei buruz hitz egiteko erabiltzen den Iparraldea Hegoa izendapena?
- Nola uste duzue eragiten duela Mercator proiektzioak Hegoaldeari buruzko ikuspegian?
- Uste duzue Mercator mapak, Hegoaldeko herrialdeak berez diren baino txikiago irudikatzen dituen, eragina duela guk herrialde horiek baliabide gutxien dituzten herrialdeak direlako ikuspegia izatean?
- Nola uste duzue eragiten duela Iparraldea/Hegoa, goian/behean, ona/txarra sinbologiak?
- Zuen ustez, zein mapak izan beharko luke zabalduena, Petersena ala Mercatorrena?
- Ondorio praktikoren bat atera dezakegu?

20 minutu inguru igaro ondoren, bateratze-lana egingo da. Ateratako ondorioetatik abiatuta, mapa bakoitzaren historia, ezaugarriak eta hura zein asmorekin egin zen azalduko dugu.

Peters mapa gehiago hurbiltzen da Hego hemisferioan lur-masa gisa hautematen duguna Ipar hemisferioan baino ia bi aldiz handiagoa dela erakustera. Mercator mapak, nabigazioarako mapa zenez eta paraleloen

eta meridianoen arteko angelu zuzenei eusten dienez, eragiten du Iparraldea askoz handiagoa izateko itxura izatea.

Irakasleek laguntza-materialean aurkituko dute informazioa.

The True Size Of ere erabil daiteke. Tresna horren bidez, herrialdeak benetako tamainarekin alderatu daitezke (lur-globoan duten posizioaren arabera), eta ez mapak erabiliz (proiektzioak). Ingelesez dagoen arren, oso erraza da erabiltzea; konparatu nahi duzun herrialdea jarri behar duzu bitartean, eta, aurkitu ondoren, bertan klik egin eta mapan arrastatu, gainerako herrialdeekin alderatzeko.

Egin ditzakegun zenbait proposamen:

- Alderatu Groenlandia Afrikako kontinentearekin.
- Alderatu AEB Afrikako kontinentearekin.
- Alderatu Brasil AEBekin.
- Alderatu Espainia Kenyarekin, eta abar.

Ondoren, irudipenak partekatzeko espazio bat irekiko da. Parte-hartzea sustatzeko, honako galdera hauek egin daitezke:

- Zein dira handiagoak?
- Alde handia dago horien artean?
- Konturatu zara zer gertatzen den herrialde bat ipar polara edo hego polara mugitzen duzunean?

2. ZEREGINA: Lur-globoaren irudikapen motak. Mercatorren mapa ez da perfektua; arazoa da Petersen mapa ere ez dela perfektua.

Sarrera gisa, eta proiektzioaren kontzeptua eta mapen irudikapen desberdinak zergatik dauden ulertzeko, "Mundua ez da irudikatzen duten bezalakoa" bideoa ikusiko dugu.

Mapa guztiek beren benetako tamainarekiko distortsioaren bat dutela ulertu ondoren, ikasleekin lur-globoaren irudikapen motak landuko ditugu.

Proiektzio-motei eta haien erabilgarritasunari buruzko eztabaidarako tarte bat irekiko dugu. Horretarako, hona hemen ikasleei egiteko moduko zenbait galdera:

- Nola irudika daiteke esfera bat plano batean?
- Mapak fidagarriak dira?
- Mapa bat errealtatearen irudikapen zuzena da?
- Ezagutzen dituzue beste proiektzio mota batzuk?
- Zergatik erabiltzen dira proiektzio desberdinak mapetan, eta ez da soilik zuzena dela dakigun bat erabiltzen?
- Mundua behar bezala irudikatzen duen maparik badago?

3. ZEREGINA: Ikasleak konturatzen direnean munduko irudikapen bat bere ere ez dela objektiboa edo inpartziala, eta horiek egia absolututzat hartzeari utzita, ideia bat partekatuko dugu: onena da mundua irudikatzea eman nahi diogun interpretazioaren eta mapa bakoitzari eman nahi diogun aplikazioaren arabera.

Proiektzio bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta, ideia hori partekatzeko, talde bakoitzari munduko maparen

proiektzio bat esleituko zaio, honako irizpide hauen arabera:

- 1. 1. taldea:** norantz orientatzen dugu mapa?
- 2. 2. taldea:** zer lurralde jartzen dut maparen erdian?
- 3. 3. taldea:** nola marrazten dugu esfera plano batean? (Mercator, Peters, Hobo-Dyer, Robinson, Goode, Winkel Tripel eta abar) Zer islatzen duten ondo eta zer ez adierazi.
- 4. 4. taldea:** nola islatzen dituzte mapak gizarte-, politika- eta ekonomia-gaiak? Planoak nahita distortsionatzen dira honako gai hauek islatzeko: <https://worldmapper.org/>

Mapa guztiak biltzen ditugunean, horma-irudi batean edo bideo baten bidez erakutsiko ditugu eta abar.

Aurreikusitako iraupena:

- **1. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **2. zeregina:** ordubete (saio 1).
- **3. zeregina:** 2 ordu (2 saio). Beharrezkoa bada, taldeek eskola-orduetatik kanpo lan egin dezakete eta 3. zeregina entregatzeko astebete eman dakieke.

*OHARRA: *Ezarritako denbora gutxi gorabeherakoa da. Lanean ari diren ikasleen ikaste-erritmoen, malgutasun instituzionalaren, irakaskuntza-denboren eta abarren arabera egokitzea gomendatzen da.*

Laguntzarako materialak:

GEHIAGO JAKITEKO:

- Mercator vs Peters. Denak menderatzeko mapa bat: <http://psanxiao.com>

[com/mercator-vs-peters-un-mapa-para-dominarlos-a-todos](https://www.youtube.com/watch?v=kSa6_Cg03IQ)

- Bada % 100 objektiboa den munduko maparik?: <https://mapnetico.com/mapa-del-mundo-correcto-y-objetivo/>
- Geografiaren eragina gure mundu-ikuskeran: <https://sarrauteducacion.com/2020/08/02/el-impacto-de-la-geografia-en-nuestra-vision-del-mundo/>
- Munduaren mapa desberdina da herrialde bakoitzarentzat: <https://www.geografiainfinita.com/2014/08/visiones-del-mundo-el-mapamundi-segun-cada-cultura/>
- Mapa guztiak oker daude: https://verne.elpais.com/verne/2015/04/14/articulo/1429016086_681676.html
- Kartografiak mapa bat marraztean duen arazoa: https://verne.elpais.com/verne/2019/10/16/articulo/1571230321_350004.html
- Mapa berri honek konpondu dezake munduaren gure ikuspegi distortsionatua? <https://www.nytimes.com/es/2021/03/03/espanol/mapamundi-nuevo.html> eta https://verne.elpais.com/verne/2016/05/20/articulo/1463732814_876805.html

BIDEOAK:

- Mundua ez da irudikatzen duten bezalakoa: https://www.youtube.com/watch?v=NLaV_O3dLpk

PROIEKZIO MOTAK:

- <https://www.youtube.com/watch?v=1LxiNqnYA3w>
- <https://www.youtube.com/watch?v=-3tJVNJL4DOA>

- Mapak, historiaren begiak: https://www.youtube.com/watch?v=kSa6_Cg03IQ

TRESNAK:

- **APPangea. Geografia eta Historia Jolas gisa:** doako App-a, iOS eta Androidentzat eskuragarri. Geografia eta Historia ikasteko modu berria, gamifikazioan oinarritutako metodologia erabiltzen duena, jolastuz ikasteko. <https://appangea.com/>
- **“The True Size Of...”:** munduko mapa interaktiboa, herrialdeen tamaina errealak konparatzeko. Aukeratu lekua, arrastatu hautaketa eta egiaztatu haren benetako dimentsioak. <https://thetruesize.com>
- **Worldmapper:** kartogramak deritzen munduko mapen bilduma bat da; mapa horietako bakoitzean lurraldeak tamainaz aldatzen dira, intereseko gaiaren arabera. Esporatu mundua inoiz ikusi ez zenuen bezala! <https://worldmapper.org/>
- **Proiektzio kartografikoak eta eskalak:** <https://clasesdesocialesarcas.blogspot.com/2013/09/representacion-de-la-tierra-mapas-y.html>

Jarduera ixteko:

Ariketan gertatutakoari buruzko gogoeta kolektiborako espazio bat irekiko da. Hona hemen hausnarketa eta eztabaida sortzen lagundu dezaketen zenbait galdera:

- Zer egin zaizue deigarrien?
- Zer ikasi dugu?
- Zertaz ohartu gara?
- Nola sentitu gara?

